


EINIKA PROGRAMA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

<http://www.arrasatebhi.hezkuntza.net/web/guest> web orrian klikatu geziak adierazten duen lekuan.



Gutunarekin batera jaso dituzun datuak, erabiltzailea eta pasahitza, sar itzazu hemen.

Arrasateko Institutuko sarrerako pantaila igaro eta gero gurasoak ikus dezakeen pantailaren itxura bi motatakoa izan daiteke, a) eta b) hurrenez-hurren.



a)

b)

DATA	OHARRA	JATORRIA	FITXATEGIA	ADOS EZE
18/10/2007	Bihar arratsaldeko Sotan bilera dugu zuekin.	AVILA HERRERA,LOITXO		<input type="checkbox"/>
18/10/2007	Euskerako libururik ez du irakurtzen, beraz etxean pixkat gehiago bultzatu behar dute irakurtzera.	AVILA HERRERA,LOITXO		<input type="checkbox"/>
18/10/2007	Zuekin bilera bat eduki nahiko nuke Goceaderen jantzeragatik hitz egiteko.	NUÑGA OLASCHEA,JOSE IONACIO		<input type="checkbox"/>

- a) kasuan, gurasoak ez du mezurik.
- b) kasuan, gurasoak hiru mezu ditu. Hiru horietatik lehena irakurrita dago (sobretxoa irekita) eta beste biak irakurri gabe (sobretxoa itxita).

Mezua ikaslearen irakasleak edo tutoreak bidalitakoa izan daiteke. Horretarako mezu bakoitza irudi batekin lagunduta ageri da eta horretaz gainera nork bidalitakoa den zehazten da jatorria atalean.

Gurasoak mezua irakurri duela jakinarazteko ADOS laukia markatu eta gorde botoia sakatu behar du eta mezua ezkutatzeko berriz EZK laukia markatu eta gorde botoia sakatu. Bi eragiketa hauek pauso banatan zein aldi berean egin daitezke (mezua irakurri eta aldi berean ezkutatu nahi badugu).

Mezu batek fitxategi bat atxikita eduki dezake, baina ez gehiago. Fitxategia irekitzeko nahikoa da klik bikoitza egitea fitxategiaren gainean.

ESPEDIENTEA

Seme edo alabaren espedientea ikusteko aukera ematen du.

Aukeratu zein seme edo alabaren espedientea ikusi nahi duzun.



Behin aukeratuta era honetako itxura duen pantaila agertuko da, non ikaslearen maila kurtsoa, taldea, eta dituen gaiei buruzko informazioa agertuko den.




Tutorea ALVARO RUIZ DE GORDO A MUSITU da.
Maila: DBH Kurtsoa: 1. Taldea: A

Gaia	Irakaslea	Atzerat.
MATEMATIKA	MAIXABEL ZUMALDE IBABE	<input type="checkbox"/>
MATEMATIKA	LONTXO AVILA HERRERA	<input type="checkbox"/>
NATUR ZIENTZIAK	PILAR INSAGURBE LZ. DE GAMIZ	<input type="checkbox"/>
GIZARTE ZIENTZIAK	JOSE IGNACIO MUGICA OLAECHEA	<input type="checkbox"/>
GIZARTE ZIENTZIAK	ALVARO RUIZ DE GORDO A MUSITU	<input type="checkbox"/>
PLASTIKA ETA	DIANA MARIA	<input type="checkbox"/>


NOTAK

Seme edo alabaren notak ikusteko aukera ematen du.

Aukeratu zein seme edo alabaren notak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak, ondoren sakatu gezi itxura duen botoiari.



Aukeraketaren ostean noten berri ematen digun pantaila agertuko da:



Gaia	Atzerat	Nota	Errek	Prozed	Kontze	Jarrer	Ohar
MATEMATIKA	<input type="checkbox"/>	8		OO	OO	OO	
NATUR ZIENTZIAK	<input type="checkbox"/>	7		OO	O	O	
GIZARTE ZIENTZIAK	<input type="checkbox"/>	8		NA	OG	GU	
PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA	<input type="checkbox"/>	6		OO	OG	GU	

HUTSEGITEAK

Seme edo alabaren hutsegiteak ikusteko aukera ematen du.

Aukeratu zein seme edo alabaren hutsegiteak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak, ondoren sakatu gezi itxura duen botoiari.


Aukeraketaren ostean hutsegiteen berri ematen digun pantaila agertuko da:



-	Gaia	Data	Ordua	Ebal	Falta Mota
	GIZARTE ZIENTZIAK	15/10/2007	1	1	EZ JUSTIFIKATUA
	EUSKARA eta LITERATURA	15/10/2007	2	1	EZ JUSTIFIKATUA

TUTORE HARREMANA

Seme edo alabaren tutorearekin harremanetan jartzeko aukera ematen du.



Horretarako aukeratu seme edo alaba eta automatikoki tutoreari dagokion testu koadroa bete egingo da.

Ondoren tutoreari idatzi nahi zaion mezua idatziko da falta den testu koadroan eta mezua bidaltzeko sobreaki sakatuko zaio.

Beste erabilpen batzuk:

